

1.- PROZEDURA: TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGAREN LIKIDAZIOA

ARAUDIA:

- 2/2004 Legegintzako Errege Dekretua, martxoaren 5ekoa, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bategina onartzen duena (<https://boe.es/buscar/pdf/2004/BOE-A-2004-4214-consolidado.pdf>)
- TMIZren udal ordenantza (*URLa, webgunean edo BAOn argitaratzen denean*)

GAIKUNTZA: «Legez»

ZERBITZUAK:

- 114 TMIZ kudeatzeko ibilgailuaren datuak (92.1 eta 97 art)

INPRIMAKIA: nahitaezko eremua izan arren formulariorik ez dagoenez —ofizioz hasitako prozedura delako—, udal ordenantza erantsiko da, berriro ere.

IRAUNGITZEA: 4 urte

2.- PROZEDURA: HOBARIAK ETA SALBUESPENAK TIMZn

ARAUDIA:

- 2/2004 Legegintzako Errege Dekretua, martxoaren 5ekoa, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bategina onartzen duena (<https://boe.es/buscar/pdf/2004/BOE-A-2004-4214-consolidado.pdf>)
- TMIZren udal ordenantza (*URLa, webgunean edo BAOn argitaratzen denean*)

GAIKUNTZA: Kontsulta bakoitzari dagokion ordenantzako artikulua «*aurkakoa ez izateagatiko*» gaikuntza.

ZERBITZUAK: Prozedura honetarako zerbitzu ohikoenak hauek dira (araudiaren arabera, betiere):

- 028 Ibilgailuaren datuak
- 024 Familia ugariak
- 121 Desgaitasun-gradua
- 073 Mugikortasun urriko baremoa
- 051 Ibilgailuen zerranda (*baldin eta subjektu pasibo bakoitzak salbuespena edo hobaria aldi berean ibilgailu bakarrerako eskatu ahal badu*)
- 090 % 65eko desgaitasuna edo handiagoa egiaztatzea

INPRIMAKIA: dagokion udalaren eskaera, non eskatzaileak kontsulten «aurka ez daudela» jasotzen duen atal bat egongo baita. Adibidez:

39/2015 Legearen 28.2 artikulua arabera,(e)ko/go Udalak, erabilgarri dauden datu-bitartekaritzarako sistemen bidez, beste administrazio batzuen esku dauden datu hauek kontsultatuko ditu, salbu eta zu, berriaz, horren aurka agertzen bazara. Kasu horretan, dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko duzu:

- Ibilgailuaren datuak
- Familia ugariaren ziurtagiria
- Desgaitasun-gradua
- Mugikortasun urriaren baremoa
- Ibilgailuen zerranda

IRAUNGITZEA: 4 urte